

## PREBENTZIO BATZORDEA

2012-03-15

Partehartzaileak: M<sup>a</sup> Carmen Santxotena, Feli Urbeltz, Ana Larrui (Lekarozeko institutoko guraso elkarte, Jasone Altxu (Baztan ikastola), Mattari Plaza (Lekarozeko institutoko orientatzailea), Mirentxu Goienetxe, Idoia Gillenea eta Maite Oteiza (zinegotzia).

Gai ordena:

1. Hondar bilerako laburpena: partehartze exkaxa, batzordeari ikuspuntu berria eman, (prebentzioa), orain arteko ibilbidea eten egin duela sentsazioa sortuz.

Landu beharrekoa edo abiatzeko gaiak gazteen artean gizarte harremanak, autoestima, jendearen esperientziak ezagutu,,...laburbilduz zerotik hasi.(Maite)

2. Askagintzako galdetegia eta lan proposamena. Iturrama B.H.In material aunitz omen dago, hezkuntz arloan lantzekoa:
  - a. 1. eta 2. mailan: alkohola
  - b. 3. maila: hachis
  - c. 4. maila: drogak (Mattari)

Gizartean kontrari badiren egoeren artean: ostatueta ixteko ordutegien luzapena. Kontsumoari dagozkien ordenantzen erregularizazioa.

Familia giroa, autoestima baxua, eskolako porrota, hezkuntz desoreka,...

3. Gatazkeen konponketa (Idoia)
4. Elizondoko bestetako esperientzia : drogen analisia, gazteen bajeak eta korto lehiaketa (Idoia)
5. Gurasoendako tailerrak, hoberena 11 saiotan egin, hitzaldiak baino.(Mirentxu)
6. Seropositiboekin egindako hitzaldiaren esperientzia (Mattari)
7. Bajeatoko erabiltzaile- taldeak, adin desberdinetako gazteekin osatua daude.Ona ala txarra?(Feli)
8. Inportantea da buru Osasuna edo mental osasuneko elkarteekin kontaktzea (ANASAPS. MENNI,...)
9. Lan egiteko eremuak eta esparruak:
  - a. Gaztetxea
  - b. Bestak
  - c. Hezkuntz mailan.
  - d. Tailerrak
  - e. Kanpaina instituzionala
10. Kulturako taldeek udal instalazioak erabiltzearen trukean, ikuskizunak eskeini.
11. Martxan paratuko diren ildoak:
  - a. Gaztetxearekin harremanatu.
  - b. Anduiren galdetegia pasatu.
  - c. Unibertsitatean gizarte gaiekin lotura duten ikasketetan aritzen diren gazteekin solastu eta bere proiektuak martxan paratzeko aukera eman.
  - d. Denbora libreko monitoreen moduloari buruzko informazioa eskuratu (edo aisialdi monitorea dute izena, ez dakit)

7,etan bilkura akitutzat eman genuen, hurrengo bilkura MAIATZAK 3, 17:30etan izanik.